

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

181n. Zenbakia Urtarrila-
1994




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARABA'KO ALDUNDIA

BATZAR NAGUSIAK



Batzar Nagusiak

Itzaropena

Urte mugetan, Gabon aroan
Zorion eta agurrak,
Guztientzako biotzak zabal
opari eder, samurrak.
Oroitzapenen oiartzunezko
Amets gozo ta pozkorrak
Izan bekiguz aldi orotan
lagun on eraginkorrak.

Lillura-mundu orretan baiña
ez gagoz beti ilkorrak,
Gizarte ontan ugari doguz
Arazo eta makurrak.
Iraupen eta itzaropena
Bide egoki ta zuurrak
Onoimena da zintzotasuna
Baztertu beti guzurrak.

Langabezia, ekonomia
Bakerik eza ta lorrak
Ez gaiezala iñoz kikildu
Izanagaitik gogorrak
Euzkadi leendik ikasia da
Ugaltzen bere indarrak
Aitor'en seme, adiskide on
izan gaitezcan jatorrak.

A.'tar A.

URTE BARRI - 1994

Gabon-jaiak sendi-giroan igaro-ondoren, sartu jaku urte barria.

Zelako gogoa eta zelako egoerea urte barri onen asieran?

Gogoa beti itxaropentsua, baiña egoerea da beste arazo bat.

Arazo bi agertzen jakuz nabarmen urte barri onetan: Lanik-eza ta larriunea.

Lanik-eza da lenengo arazoa. Orain arte lan-lekuak galdu eta galdu ibilli gara, batez be Euskalerrian. Amaituko ete da jokera txar ori urte barrian?

Ezetz uste dogu. Urte barri au oraindiño lan-lekuak galtzeko urtea izango. Urrengorako izan daikegu itxaropen apur bat, baiña aurtengoa lana galtzeko urtea izango da.

Eta arazo samiña da. Lana galtzen ba'da, edo lan-leku barririk sortzen ez ba'da, ainbeste gazte aurkituko doguz lanerako gertatuta eta lenengo lan-lekua lortu barik. Ainbat adin oneko andra eta gizon, sasoia baiño lenago zar-saridun izatera beartuak, ainbat langille izandakoak eta iñoz izan ez diranak, eskean.

Ba-dago or norberekariaren arazoa be. Dagoan lana alkarren artean obeto banatu bear litzake, ez batzuk, dauken lana egiteko, orduak falta dabezela eta beste batzuk geldian.

Orretan ez gara ba, itxaropentsuak urtebarri onetan.

Eta larriunea edo krisisa zer? Amaituko da urte barrian?

Ez. Urte barrian larri-unea geiago agertuko da gure artean. Mundu zabalean berbizkunde-izpi batzuk ugari-tuko dira, baiña gutzat ez da izango aurtengo urtea igazkoa lakoa, txarragoa baiño.

Urrengo urtean, bear ba'da, zerbait obetu leiteke giroa, ez aurtan.

Egia esan, orain artean izan diran larriuneak beti izan dira azpiratuak, beti urten dau aurrera gizadiak. Eta oraingo onetan be urtengo dau, baiña denpora gei-ago bear da eta lan-orduak gitxiago izan bear dirala, argi ikusi bear dabe lantegi-buruak eta langilleak.

Guztiok dakigu zelako aurrerapena egin daben lane-rako tramankuluak. Orreik gizon askoren lana egiten dabe. Eta gizonak lengo beste ordu lan egin ezker, lan-naren ondorena, produkziñoa, asko ugarituko litzake eta orduan arazoa saldu-eziña izango litzake. Ez da ikusten ba, beste urtenbiderik, lan-orduak urritzea ta ondo banatzea baiño.

Baiezkorren batek esan daike, erosleak Irugarren Munduak aurrera egiten dauanean sortuko dirala. Baiña noiz izango ete da egun zoragarri ori? Ez ete daukagu saldu-bear estugoa?

Eta urte barri onetan Europa ra sartzeak pausu barriak eta aundiagoak emongo dauz. Orretarako gure lantegiak barriztatu egin bearko dira eta ori dala-ta arrantzaleak eta lurginaik egun estuagoak ikusiko dabez.

Urte barri onetan Europa'k estutu egingo gaitu, baiña urak euren bidera sartzen diranean, Europa ongarri izango jaku.

Or zintzo eta sendo jokatu bearko dogu gure euskaltasuna ez galtzeko. Gaurko munduak arrisku aundiak dakaz euskerea eta euskal-nortasuna galtzeko. Geure ardura biziak bideratuko dau gure erriaren arazoa.

Iluntxu agertzen da ba, urte barri onetako giroa. Zer egin?

Apur bat estuago bizi, edo, beste era batera esateko, gure irabaziak obeto neurtu eta gitxiago eralgi.

Sarritan bururatzen jaku gaur geienok daukagun bizi-geia larregikoa ez ete dan. Kanpotik, toki aberatsetatik, datozenak be, esaten dauskue ezin dabela ulertu zelan bizi garean ain ondo.

Zori txarrez, guk apur bat estuago bizi bear ba'dogu, askoz txarrago bizi izango dira gaur estu bizi diranak.

Eta geure abertzaletasunari ta euskereari eutsi. Giroa txarra da eta alegin aundia egin bear da.

=>=> =>=> =>=>

URTE BARRIA

**URTE BARRI
TXARRI BELARRI
DAUKANAK
EZ DAUKANARI...**

Errikoia

Urte barria, asmo barriak, geienetan zaarrak barri, aintzinako batek esaten ebanez "ez dago barririk eguzkipean" eta. Badirudi egutegiak dana aldatzen dauala: asmoak, gogoak, naiak, gurariak, amesak... geu oso-osorik aldatze gaituala emoten dau. Baiña gero, urtea amaitzean, betiko moduan "urtea erdia uzte" dala konturatzeko gara, eta askotan ez erdia, osoa baiño.

"Urte barria, bizitza barria"? edo zaarra barriztu nai? Egutegiak sendatuko deuskuz gaitasunak? Eta ekonomi larrialdi onetatik atara ere bai? Bortxakeria eta pake-eza konponduko ditu? Ez gaitezkan iñuzenteak izan! Orreek guzti orrek eguneroko ekintzek konponduko dabek eta ez beste ezerk. Egutegiak joan diran urteak kontatzeko eta etorriko direnei epea jartzeko baiño ez dau balio. Ala, gure asmo, gogo, nai eta abarreko guztiak irudi liluragarri apaindutako paper batzuetan oiñarritzen dira? Gu gagoz egotekoak orrela izan ezker? Ala izanez, gure burua gau odeitsu bateko illargiak argitzen dauala esateko moduan gagoz.

Adibiderik urbillenatarikoa eta adierazgarrienatarikoa 1992 urtea dogu. Bazirudian urte orretan munduko arazo guztiak konponduko zirela: langabezia, diru egoera larria, politikoen ustelkeria, eta abar luze bat, baiña zer? Zuzendu diren gauzen batuketa egin ezker, emoitzean ez dogu askorik artzen. Batuketa ordez, kenketa egin dogula pentsatu geinke, irabazi-bearrean galdu egin dogula emoten dau. Bereala konturatzeko gara 1991-tik ona, arazoa zuzenago ordez okerrago dagoala,

egoera larriagotu egin da. Or izan ziran EXPO, Joku Olinpikoak, AVE (Cesar?), Amerika aurkitzearen 500garren urteurrena (euskaldunok leenago eldu giñan), eta ez dakit beste zenbat gauza. Egin, egin ziran, baiña oraindiño iñork ez dau atara kontu zeatzik orreetan sarturiko dirua berreskuratu dan jakiteko (orrela izan dala egunkari askotan agertu arren). Epe luze egindako diru-gastuak direla diño, baiña epea luzezia izango dala susmatzen dot. Urte orretan gertatutakoen ostean geroago eta argiago daukat Estatu-ko jaurlaritzak aintziñako erromatarrek erabiltzen eben politika berbera erabiltzeko asmoa daukala: Erriari bearrezko gauzen ordez, ikuskizunak emon. Langabezia konpontzeko, EXPO eta Joku Olinpikoak; politikoen ustelkeria Estatu-ko futbol taldea munduko txapelketa nagusira joateaz aaztuten da (zenbat kostatu jaku jokalarien izerdi tanta bakoitza?); T.V.-ko ikuskizunak ere futbola eta zezanak, titi eta ipurdiak, ganorabako leiaketak, au da, ikusmena alaitzeko (! ! !???) modukoak. Badirudi aurrean daukaguzan arazoak begibistatik kendu ezker, berez konpontzen direla. Edo leenago esan dodanez, egutegi barri batek orain arte euki ez doguzan indarrak emoten dauskuzala arazoak konpontzeko.

Eta egutegi barria itxaropen eta beterik begiratzen dogun une oneetan, ezin dot burutik kendu Joseba, Joseba Goikoetxea. Abertzale onentzat amaitu dira egutegiak, itxaropenak, amesak... Norbait ilten danean mingarria bada, besteren batek ilda izan ezker mingarriago

izaten da. Gaiñera atzetik sentimendu desberdin asko geratzen dira: Iltzailearen poztasunetik asita, gorrotoraiño, bitarteko guztiak aaztu barik: miña, mendeku-gogoa, oiñazea, naigabea, atsekabea, errukia... Erreza da miñez esatea ez dala gorrotatu bear, parkatu egin bear dala, alakoak aaztu eta geroari begira sutsuago eta kementsuago bideari ekin bear jakola. Baiña gertakariak urbiletik ikutzen gaituenean, ori guzti ori, itz-utsak baiño ez dira, biotzak sentitzen dauana ezin dogu kontrolatu-eta. Iltzailleak euki daiken poztasuna ildakoen lagunek orrenbeste edo gorroto geiagoz estaldu daikie bereala eta alako ekintzak zabaltzen dabezan bideak badakigu negarra baiño ez dakarrela. Dana data batera edo bestera sartuak gara gure arteko burruketan.

Aurreko baten esan nebanez indar geiago egiten dogu gure arteko burruketan, daukaguzan arazoak zuzentzen baiño. Eta bitartean etsaiak bane: "Oraingoan euren artean il dira" esango eban batek baiño geiagok eskuak igurtziz, zerraldo baten inguruan sendiak eta lagunak negar egiten eben bitartean.

Eta zertarako? Zer lortu da eriotz onen birtartez? Miña, gorrotoa, mendeku-gogoa, bilduta, odol beroa... baiña ezer baikorrik? Zenbategi, urkoetatik aparte, gogoratuko dabe emendik iru edo lau urtera gertakari oker au? Zertarako egin da? Erri onetako eriotz-zerrendan bat geiago jartzeko? Orren arrunta, normala, oizkoa, egunerokoa biurtu jaku indarkeriazko eriotza? ZORATUTA ETE GAGOZ!! Batetik zein bestetik begiratu, ez dauka zentzunik, ez ankarik ez bururik. Euzkadiren aide ainbat lan

egindako gizonari, Euzkadiren izenean BIZIA KENDU !

Bertoko sasoiko gizon bateri zera entzun neutson: "Non ete egoan iltzailea Joseba ixiltasunean Francoren aurka ebillanean!, edo jipoitua izan zanean!, edo espetxean egon zanean! Ba ete daki Francori buruz, txanpoi batzuetan agertzen dan morroia dala baiño geiago? Ba jakin daijala bere jokabide berbera euki dauala: iñolako eskubirik euki ez errespetatu barik, ezelango epaiketa barik iñongo defensiva aukera barik... Abertzale bat il dau!!; egunkarrietan agertu dan bezela, il aurretik gudariek esaten eben "Gora Euzkadi askatuta" esateko aukera barik eta Francok beintzat aukera ori omoten eban".

Egutegiagaz asi eta begira non amaitu dodan! Baiña emen daukagu adibide bat, eta ez daitela eredu izan: Ezin gara urte barriari itxaroten egon eguneroko arazoak konpontzeko, ezin dogu biarko itzi gaur konpondu daikiguna, eta askoz gitxiago burua lurpean sartuz arazoa berez zuzentzea itxaron. Bada beste bide bat, erosoagoa, komodoagoa: Besteren batek atara gaiazala zulo onetatik, baiña egia esan istorian zear interes bako salbatzaile eta askatzaile gitxi izan doguz. Eta orrexegaitik, ez dago txarto noizbeinka istorian atzerantz begiradatxo bat emotea, utsak ikusi eta barriri arri bardiñean ez joteko. Zein mingarria dan askotan, ikusiaren gaiñera jakituria lortzea!!!

ENRIKE ITXASALDE

EGUTEGIA

Aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k eguneroko orritxua eskiñiko dautzun Egutegia argitaratu dau, Bilbao Bizkaia Aurrezki-Kutxa'ren laguntzaz.

Urte Barrirako oparia izan bekizue doan emoten dogun egutegi au.

Eskatu egizu urren daukazun BBK'ren etxean edo Euzkerazaleak Alkartearen etxean (Colon de Larreategi 14, 2.^a, eskoia).

ZORIONAK!!!

RAFAEL GAZTELU

FRANZIZKOTARRA

GERNIKA

Gernika!, erri-aginduz zara
Euskaldunen Jauretzea;
asaba zaren batzar etxetik
dator Euskal izatea.
Aretx ondotik, sakon ta sendo
sortu da gure legea;
Gurutz ikurrak eutsi dau beti
Eusko semeen fedea.

Nundik sortzen da erri baten izen ona? Erria al da bere semeai izen ona emoten dautsena? Ez, ba. Giza-seme ospetsuak dira erri bat gorengo maillan jartzen dabenak. Ba'dau Gernika'k, mundu-zabalera guztian, entzute ona ta goragarria. Nork ukatu bere izen ona asaba zaarren, lege-gizonen, eta beste seme argien birtartez datorkiola?

GIZON BARRIA

Mixiolarien egin-gaia ez da bakarrik Kristo'ren Barri Ona ots egitea, eta bere Elizaren oiñarriak jartzea. Kristo'ren Barri Onak gizon barria gura dau, gizonaren biotz-barritzea. "Ez dago mundu barririk, gizon barria bagarik".

Zelan burutu ori? Naikoa lan! Egin-gai ori betetze-ko, Jaunaren aurrean, sakonkiro ausnartu bearko ditu mixiolariak berba argi oneik: "Zure buruaren kezka izatea ez da aski. Zu parte bat zara, atal bat, besterik ez. Batasun aundiago batean sarturik zaude. Elkarreki-ko lokarriak ditugu. Danok nabaritzen degu gure barruan besteenganako ongi-naia. Eta jokera au izadiak berak emanik dakargu. Lagunartean bizi gara, gizar-tean. Gizartea da gure etxea. Eman, iñoiz artzerik nai baldin badezu". (Aita L. Villasante, Jainkoa, 82).

Zer ikusten dau aita Rafael'ek bere begien aurrean? Gizarte eta lagunarte kaxkarra. Ezin sinistu, ikusi barik, emengo basatien izakera eta bizikera gogor eta latza. Emen ez dozu ikusiko gure arteko aukera eta erosotasunik. Bai, zera.

Zer egin? Lenengo ta bein bere gogo ta asmoa, bere barrua ta izakera osoa aldatu bearko dau. Zer dala

ta? "Guztientzat guzti egin naz, onelantxe batzuk irabazteko".

Nundik asi? Zer izango da bere lenengo eginbidea? Persona baxotxari bere nortasuna, gizadasuna eta kristautasuna erakutsi eta bizi eragin. Era berean sendi bizitza, bere oneratu. Etxe-gabe, eta erri gabe bizi diranak, Kristau alkartasunera ekarri. Ez da ori gero geure opillari putz egitea.

ETORKIZUN BARRIA

Aita Rafael, Satipo errian auzotu, eta bertan biziko da berrogeta sei urte buruan, Ukayali aldeko mixiolarien buru eta arduradun izanik urte askotan.

Erri baten aurrerapenak eta etorkizunak oso bearrezkoak ditu Elizak, ikaste-etxeak, batzar-tokiak, osasun-etxeak, etabar. Gogo beroz jokatu dau onako erri-lanak eta erruki-egintzak egiten.

Eta, au bai, benetan arrigarria! Aita Irazola'gaz batera, bidegintzari ekingo dautso, Satipo, Okipa, Obenteni eta Atalaya errien artean auto-bideak zabaltzen. Auto-bide onen inguruetan lurak erritu egingo dira, bai, eta lekuri egokienetan egokituko ditu baselizak eta mixio-etxeak. (1917)

Izerdi patsetan eta neke gorrietan egindako etxeak eta bideak, ikaragarritzko lur-ikaraz, apurtuta eta erdibituta geratuko dira. (1947). Aita Rafael'en barruak zartada galanta artuko dau. Nork ez? Okilduta geratuko ete da? Bai zera. Barriro be, jo ta ke, ekingo dautso etxe eta bide barritzeari. Larrialdi gorri ontan ondo baño obeto erakutsiko dau eusko seme baten adorea, kemena ta sendotasuna.

Emen, bai, esan bearko Arantzazu'ko poemak dakarrena:

"Suak indarrak ba'ditu ere
euskaldunak erredoble".

Azkenik, gaixo zital batek jota, Lima uriburuan, Jaunaren besoetan, betiko saria ta atsedena artu eban. (1962). Gernika'ko seme argia, eusko seme leiala, Kristo'ren eta erriaren alde, eten бага, jokatu eban gure aita Rafael, amai bako bizian gerta bedi.

AITA URIGUEN'TAR ZENON

TXAPARRO ETA JUSTO

Txaparro taller txiki bateko ugazaba zan. Zortzi bat biergiñ eukezan, garai aretan, maiyek eta aulkiyek eiteketo.

Txaparron ustez, bere bier lekue taller barruen barik kanpuen egoen, au da, berak bere burue ugazaba zortz modure baiño, asmatzaille, artuemonetarako gizon edo saltzaille (erderaz: inventor, relaciones publicas o vendedor) modure ikusten eban.

Ori dala eta asko maite ebazan bierra buruzko bidaldiak, baiña bidaldi onek sarritan bene benetako gertakizun barregarrietan biurtzen zien.

Txaparro, onelako bidaldietan, Justo eroaten eban bere laguntzaille bezela.

Beñ, trenien neiku urriñ juenbierra euki eben, eta gure mutillok, salerosle argi, azkar, eta zuur modure, maletatxo eder bat eroan eiben. Ogibitarteko gozuek, txorizo, tortilla eta abar, eta zelan ez, ardau baltz botillatxo bat be an egoen bere orduai begire.

Gosie piskat sakatzen asi zaniene auxe gertau yaken gure lagunei:

Txaparro 'k: *Justo zabaldik rnaletie!*

Justo k: *Ordue izok, mutill.*

Txaparro 'k: *Tirok, ezik negarrik egiñ. Oiñ be ik mereziduan bestejangok. Zabaldik ardaue be!*

Justo k: *Mereziduan beste diñok? Neuk yekat kulpie iaz etortiarren. Ik bai mereziduok ik, gaur be aaztu yata sakakortxue.*

Txaparro k: *Niri!, Jaungoikuen izenien. I az burugogorra, beste aginduik ez nuan emon oixe baño, eta bera aaztu. iAi Jauna! Norberak egiñ bier dana.*

Justo'k: *Egoari trankil, ainbeste bider moduen, gaur be neuk etakaut estuasunetik. Neuk erakutsikuat zelan zabaltzen dan botellie ezertxo barik. Pelikula baten ikusi nayuan zelan indiyu batek kentzen eutzan txorkue boteilliai.*

Txaparro'k: *Indiyue bazuan, ondo ikesikuan, etzekat dudaik, ze euri be lumak bakarrikfalta yataz.*

Justo'k: *Egoari isilik, mesedez, ze eu as nire jefie ".*

Orrela ba, Justok artu esku biyekin eta botellien eperdiyaz, astiro astiro, egurrezko jarlekue jotene asi zan. Tak, tak, tak.

Txaparro'k: *Zer eitten abil? ... Apurtukok!, eta, Gero zer?*

Justo 'k: *Ezetz ba, gizona. Zuek sekule ezer eztozuenok ikusi, laster bildurtzenzaye.*

Txaparro k: *Eoari geldil! Eoari geldil!*

Justo'k: *Trankil badatok eta, badatorrela ba.*

Baiña zoritzarrez Justok ezeban ondo ikesi pelikulan ikusitekue...! Krasts, katapastfff! botillie mille zati, eta Justok prakak ardauaz jositte.

Txaparro?... Txaparro ezertxo gertatu ez balitz letz auxe egiñ eban: Jatsi kristela, artu maletatxue, eta maletatxuoi, berak barruen eukezan guztiekin trenetik kanpora bota. Gero sermoik eta orrelakoik barik, jaiki, eta astiro astiro, ugezaben ibilkeriaz, treneko jangelara juen, bere amarretakue eitten.

Justo, bakarrik geratu ete zan?... Guk, Txaparro, eta Txaparron biotza, ezautu gendunok ez dogu dudarik... lenengo amorrualdiyen ostien, biyek izeño zien alkarraz, jateko orduen.

Ipuin-Sariketarako sasoian etorri jaku ipuin polit au, Markiña-inguruan-edo idatzia baiña izen barik. Sariketarako laburregia be ba-da-ta, emen argitaratzen dogu.

IDAZKOLAKOAK.

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

KOLON ETA EUSKALDUNAK

AURKEZPENA



Aspalditik egin oi dogun lez, aurtan be Eskolapiotarren Ikastetxe onetan, Euskal Astea atondu dogu.

Ospakizunari asiera emon aurretik, bidezkoa deritxat, "Euskerazaleak" en izenean ikastetxe onen batzordeari gure eskerrik beroenak emotea, oi lez, areto txukun eta egoki onetan, Euskal Astea ospatzeko aukerea emon dauskuelako.

Gaur, astelen onetan, Olazar'tar Martiñ'eri dagokio zuei berba egitea, "Euskaldunak eta Kristobal Kolon" gaitzat artuta.

Danok ezagutzen dozue, urrean, Olazar Jauna, gure Euskerazaintza edo Erri-akademiarren lendakaria dogula.

Euskal idazle ta gai askotan ezagularia izanez gaiñera, gitxi, iñor ba'da, bera baizen egokiak gaurko gaia jakituri osoaz garatzeko.

Gure aldizkari "Zer" en zuzendari ta idazlea izanik, illero irakurriko zenduezan bere lan zudugarri edo interesgarriak.

Eta gogoan arturik ni entzutera ez zariela etorri, bere esatekoak bai ostera, asi bei beraz, gaurko gaia dan "Euskaldunak eta Kristobal Kolon".

ZUBIRI'tar IÑAKI'k

BERBALDIA

Beti izan dira

Euskaldunak beti izan dira Ameriketan,

Kristobal Kolon'en denporan asi eta gaur arte. Eta euskaldun asko, gaiñera.

Zergaitik ete da ainbeste euskaldun izatea Ameriketan, garan lako aberri txiki bat izan-da?

Alde batetik, guk, itxasoagaz beti artu-emon aundia izan dogulako, lurra emonkorra izan ez ba jakun, ondoan izan genduan itxaso emonkorra.

Gaiñera, eta orrexegaitik bear ba'da, euskaldunak oso trebeak izan gara itxas-ontziak egiten. Bikingoak irakatsi euskuela? Ba-lei-teke, baiña ontzigin oso trebeak izan gara. XV gizaldian gure ontzigitza aldi aretako onena zan eta geu gintzazan Iberia guztitik ontzirik geien saltzen genduzanak.

Orregaitik, zeregin aundia bete gendun Amerikak aurkitzean eta eskuratzean, Kolon'egaz lenengo osteran asita, asko joan ziran: "Santa Maria" izeneko ontzia euskalduna zan eta ontzi onetan bigarren nagusia, Kolon'en urrengoa, Juan de la Cosa be bai esango dogun lez.

Juan de la Cosa

1460'an jaio zan Kantabriar eta euskaldun lez agertzen dan gizon ospetsu au.

Aldi aretan lur-irudiak (mapak) egiten onenatarikoa zan eta berak egin eban mundu guztiaren lenengo irudia, Amerikak barru zirala.

Non jaioa zan?

Enkarterrian, antza dagoanez, baiña jatarriz Santoña'koa ei zan. Ziur dakiguna da, Gaztela'ko Erregiña eta Bizkai'ko andrea zan Isabel Katolikuak "Juantxo Bizkaino" esaten dautsola eta Kolon'ek berak be laguntzaille ori Bizkai'koa dala diñola. Gauza bera ziurta-

tzen dau Frai Bartolome de las Casas ondo ezagunak be.

Zalantza barik euskeraz berba egiten eban eta itxas-gaietan oso trebea zan.

Europa-inguruko itxasoetan ara ta ona ibilli ondoren, 1490'ean, itxas-ontzi bat bera-gandu eban. Auxe izan zan gero Kristobal Kolon'ek, Santa Maria izena ezarrita, Ameriketarako artu ebana: "Ontzi aztuna, ontzi-gizonik geienak Juan de la Cosa'ren lurraldekoak ebazana" diño Kolon'ek.

Beste sei euskaldun

Zazpi euskaldun gitxienez aurkitzen doguz "Santa Maria" ontzian. Orduan orrelan esaten zalako, "bizkaitarrak" dirala diño, baiña euskaldun guztiai ezarten jaken orduan izen-lagun ori.

Ona emen izen batzuk: 1) Lekeitio'ko Txantxu gizon sendoa eta aginpide aundikoa ontzikideen artean, Kolon eta Juan de la Cosa'ren urrengoa, arduradun lez. 2) Ispaster'eko Antxia'tar Domingo, onek kupelgintza eban beronen lana. 3) Natxitu'ko Martin, au laguntzaille gaztea zan, "grumete". 4) Semez Erandio'koa zan Areisti'tar Lope, ontzi-konpontzaillea. 5) Arana'tar Diego, Kordoba'koa baiña jatorriz euskalduna. Onek ontzi-zain izateko ardurea artu eban eta zuzentasun-auziak beteten ebazan Kolon'en gurrariz. Izan be Kolon'en maiteñoaren lengusua zan. 6) Lekeitio'ko Domingo deritxon beste bat joian lenengo ostera onetan.

Sei gizon onei buruz ez dakigu gauza aundirik: Txantxu'k, esaterako, bere lan-saria amari ordaintzeko eta bere erederu bakarra ama izango zala itzi eban aginduta.

Euskaldunen jokabidea

Ziur dakiguna da, talde lez, ondo alkartzen zan Santa Maria ontzia, koralezko erpiñen

zirala euskaldunak ontzi aretan eta bestea-kandik ondo bereizten zirala.

Orixe berori agertuko da beti gizaldien joanean Ameriketara joango diran euskaldunen artean: Alkartuta lan egin, taldeko bear-tsuai lagundu, taldetik kanpokoakaz, batera jokatu, taldekoak ez diranakaz ez alkartu... Euskereak sortzen eban alkartasun ori, sortu eta eutsi: Euskeraz egiten eben berba eta taldekoak ez ziranak ez eben ulertzen.

Matxinadak

1492'ko urillaren 6'an, matxinada bat sortzeko alegiña asi zanean, Santa Maria ontziko batzarrak izan ziran eragille nagusi: 750 legua egitea zan Kolon'egaz egindako ituna eta euren ustez 800 baiño geiago ziran egiñak. Kolon'ek zenbaki oneik gitxitu egiten ebazan, iñor artegatu ez daiten, baiña igarri eben ontzi-mutillak. Kolon-egana joan eta itxasora botako ebela esan eutsoen.

Kolon'ek beste ontzi bietara eskatu eban laguntza eta azkenean euskaldunak atzera egin eben, beste ontzikideak euren aurka jarri ziralako eta matxinada-zale lez epaituak izateko arriskua ikusten ebelako.

Beste era batera jazo ziran gauzak barrero, urillaren 9'an: 1.000 legua baiño geiago ziran ibilliak eta iru ontzietako mutillak batzarrak egin eta euskaldunen jokabidea onartu eben.

Orduan Kolon'ek Pinzon bitarteko zala, iru eguneko epea eskatu eban.

Bigarren egunean ikusi eben Guanahani edo "Salvadore" izango zan ugarte.

Euskaldunen gabonak Ameriketean

Urte aretan, Gabon egunean, ondatu egin

artean ugarterik ugarte ebiltzala. Ori dala-ta Kolon Juan de la Cosa'ren aurka asarre bizian jarri zan, berau eta beronen euskaldunak zirala errudunak eta batel baten iges egin ebela esanez.

Lurrera sartu eta "Gabon-Babes" edo "Fuente de Navidad" egin eben eta emen geratu ziran gure "bizkaiatarrak", Arana'tar Diego buru ebela, eta Kolon España'ra biurtu zan.

Bigarren osterea azaltzen dogunean jarraituko dogu gai au.

Beste ontzi bietan

Santa Maria ontzikoak geienak izan arren, ez dogu uste izan bear beste ontzi bietan ez joialala euskaldunik. Besteetan be ba-joiazan eta geienak gipuzkoarrak ziran.

"La Niña"n Pedro Arraes eta Juan onen semea, Deba'koak, baiña Huelva'n bizi ziranak. Deba'koak, baita, Juan Ruiz de la Peña eta Juan Martinez de Azoque.

"La Pinta"n Algorta'ko Juan Kintero eta Berastegi'ko Oier.

Beste bost be agertzen dira, naizta ziur jakin ez euskaldunak ziranik: Bermeo'ko Domingo, Bergara'ko Frantzisko, Egia'ko Bixente, Bilbao'ko Pedro, eta Juan Perez Bizkaiatarra. Gauza arrigarri bat: Aldi onetako gizonen artean %50'ek Juan dauke izena.

Kolon'en bigarren osterea

Bigarren ostera onetan barriro agertzen jaku Juan de la Cosa. Lengoa ete da ala izen bardiña dauan beste bat? Biak euskaldunak?

Lengoa, esan gendun, Enkarterrikoa zan jaiotzaz, jatorriz Santoña'koa. Baiña Kolon'egaz erdi-asarre amaitu eban, bere eruz itxas-ontzia koralezko aitxetan zapuztu

zalako. Geroago Juan'ek berea zan itxas-ontzi aren ordaiña eskatu eban eta emon be ordain ona emon eutsoen. Egin ete ebezan alkarren arteko bakeak Kolon'ek eta Juan de la Cosa'k? Ez dakigu.

Orain agertzen dan Juan de la Cosa au, lengoaren zeregiñetan ez da agertzen, beste lan berezi batzutan baiño. Orregaitik dirudi beste bat dala.

Zazpi ostera egin ebazan emendik Ameriketara Juan de la Cosa orrek eta azkenean antxe il eben onditarrak zugatz-ondo bateri lotu eta geziz josita.

Bigarren ostera onetan beste euskaldun batzuk be agiri dira: Olano'ko Lope eta Zamudio'ko Martin Santxez sarritan agertzen dira gauza benetan arrigarriak egiten. Olano'ko Sebastian, Gebara'ko Fernando, Arteaga'ko Luis, Saltzedo'ko Bartolome, Muntzaraz'ko Migel eta Garai'ko Franzisko.

Oneik dira ezagutzen doguzanak, baiña zailantza barik, geiago be izan ziran, guk izenak jakin ez arren.'

Geiago ez izateko be errazoi batzuk bada: Bizkai'ko Ontziak Kolon'eri bigarren osteran laguntzeko gertu egozala, Boabdil arabiarren erregea Afrika'ra eroateko agindua emon eutseen.

Zertarako egin zan bigarren ostera au?

Batez be Gabon-Babes eritxon toki aretan geratu ziranak, zelan egozan ikusteko. Zori txarrez ondamendi ikaragarria aurkitu eben an: 39 ziran, euskaldunak be bai, Arana'ko Diego euskalduna zaintzaille eta Lekeitio'ko Txantxu buru ebezala. Inditarrak il egin ebezan. Orregaitik ordutik aurrera emengoen eta inditarren arteko artu-emonak garratzagoak izan ziran.

Ondamendi ori ikusi arren, aurrera egin eben: Kuba'ren ego-sartaldera eldu eta lurralde ori arakatu eben, Kolon'en aginduz.

Kolon pozik egoan lur barri au aurkitzeaz eta ugarte barik lur-barrua zala uste eban,

bere ametsetan billatzen eban Asia, Marko Polo'k ikertu eban lurraldea, axe zala uste eban eta uste orretan iraun eban il arte.

Kolon'egaz batera joiazan guztiak be ori sinisten eben eta lur-barrua aurkitu ebela izenpetu eben. Juan de la Kosa'k bere zalan-tzak eukazan, baiña besteakaz batera izenpetu eban agiri ori.

Urre-billa

Beste ostera asko egin ziran ameriketara eta beti izan ziran euskaldunak kideko. Ona emen ezagunenak: Laugarren osteran Ledesma deritxon euskaldun bat izan zan garrantzitsua eta Panama'tik iparralderantz egin ebazan urre-billa ibillaldiak. Orretan erabilli ebezan iru ontziak Portugalete'n egindakoak eta berton erosiak izan ziran.

1514'an Garai'ko Franzisko izan zan garrantzi aundikoa billaketa onetan.

Darien'eko oian aundiaren inguruan urre-billa ibilli ziranen artean Enzitso'ko Martin agertzen da. Au Ameriketako kartagena'ra eldu zan ontzi bigaz eta ontzietan 150 lagun eroiazan eta lagunakaz batera 12 beor, txarriak eta gari-aziak ugari. Bere agindupean eukan gero ospetsuagoa biurtuko zan Franzisko Pizarro. Euskaldunak irasia zan San Sebastian'era bialdu ebezan. Pizarro Enzitso'ren ontzian joan zan Ameriketara, ostenduta, "polizoi" lez.

Darien-inguruan urre-billa ibilli ziran onein artean gorabera aundiak izan ziran eta euskaldunak ondo zaindu eben alkar: Ibillaldietako gastuak ordaintzeko "La Española" ontzian egozan euskaldunak ipiñi eben dirua. Ontziak eta langilleak Olano'ko Luis eben nagusi eta 1509'an otsaillaren 22'an Bilbao'ko Iñigo Artetxe'ri erosi eutsoen San Leon ontzia 400 duketean.

Olano'ko Lope baitu ebenean, Zamudio'ko

Martin Santxez eta beste euskaldun batzuk askatu eben. Or argi agertzen da euskaldunak alkartuta jokatu ebela. Ara zelan diñon Oviedo izeneko edeslariak: "Olano'ko Lope Bizkaitarra zan eta entzun eban Darien'en Zamudio'ko Martin zala alkate eta ba-ekian Olano'ko Lope'ren senide zala. Ba-egozan beste bizkaitar batzuk be euren senideak eta beste euskaldun batzuk, izkuntza bardiñekoak eta onei idatzi eutsen baituta egoala esanez..."

Euskaldunak Kuba'n

Urre-billatzaileak aurrera jarraitu eben.

Kuba'ko gorabeera oneitan ezin aiztuta itzi euskaldun ospetsu bat, Errenteri'ko Pedro. Onek inditarren alde jokatu eban eta bere dirutza dana emon eutson Fray Bartolome de las Casas'eri, inditarren umeentzat ikastegi bat ezarteko.

1495'ean euskaldunentzat kaltegarri zan erabagi bat artu zan: Mundu barrira ontziak urteteko kai bakarra Kadiz'koa izango zala.

Zer egin eben euskaldunak?

Erabagi ori onartu-bearra izan eben, baiña Kadiz eta Sebilla'gaz eukezan artu-emonak ugaritu egin ebezan. Kadiz'en ipiñi eben "Ontzi-Buru Bizkaitarren alkatea". Sebilla'n be Bilbao'ren ordezkari bat ipiñi eben ontziak eta gizonak aurkitzeko ardureagaz eta euskaldunak bide orretatik indartu eben euren salerosketa.

Orretarako ordezetxeak sortu ebezan, arduradunak euskaldunak zirala. Ospetsuak izan ziran lan orretan Eibar sendikoak: Eibar'eko Lope Fernandez, Aretxaga'ko Juan, Eiba eko Pedro. Bardin egin eben Kuba'n eta Yukatan'en be. Ospetsuak izan ziran Ernani'ko Juan Ibañez, Aranburu'tarrak, Oñateko Juan eta Martin...

Kuba-inguruan agertzen dira baita

Getxo'ko Esteban, Salazar'eko Santxo, Urbieta'ko Sebastian, Aizpa'ko Migel, Berrie'ko Juan...

Puerto Riko'ra be eldu ziran euskaldunak: uruena'ko Juan; Bergara'ko Kristobal, Arana'ko Pedro, Arriano'ko Pedro, Aiala'ko Diego... Puerto Riko'n bertan inditarrak eraso ebenean, Salazar'eko Diego, Teso'ko Migel, Añasko'ko Luis izan ziran nagusi. Lurgintzailana asko indartu eban Juan Mejia Egiluz'ek.

Kolon'en irugarren osteran ainbat euskaldun joan ziran. Ezagutzen doguzanak Olano'ko Lope, Araba'ko Pedro, Ledesma'ko Pedro, Arriaran'go Martin, Ibarra'ko Pedro.

Laugarren osteran be ainbat euskaldun daukaguz. Lau ontzitan 150 itxaskari joiazan eta ontzi bat beintzat euskaldunak egiña zan eta "Bizkayana" eukan izena. Ontzi onen ugazaba Getaria'ko Juan Orkiña zan, kontraixua barriz Ondarrabikoa, upelgiña Arrieta'ko Martin, ontzi konpontzailleak Domingo Bizkaitarra eta Domingo Arana, arotza Matxin, itxaskariak Moya'ko Pedro eta Atin'go Martin, zazpi langille, Txenko zaintzaillea eta Salazar turutaduna.

Santiago ontziaren buru Ledesma'ko Pedro zan. Gurtiz %12 edo 15 ziran irugarren osteran euskaldunak. Kuba'ra eldu baiño len, 6 euskaldun it ziran eta besteak 1504'an biurtu ziran.

1506'an it zan Kolon, mundu barri bat aurkitu ebalakin barik. Juan de la Kosa 1509'an it eben inditarrak, esan dogun lez zugatz-ondo bateri geziz josita.

Bartolome, Kolon'en anaiak Kuban 1497'an matxinada bat jasan bear izan eban eta bere aurka jarri jakozan euskaldunak. Muxika'ko Adrian, Gamiz'ko Pedro, Escobar'eko Domingo.

Andik laster eldu zan Kuba'ra Gebara'ko Ernando. Auxe izan zan inditarren erregealaba bategaz ezkondu zan lenengoa. Ordura

artean ez zan izan ezelako enda-nasterik. Ango alkate zanari ez jakon atsegin izan olako ezkontza ori eta emaztea izteko agindua emon eutson baiña agindu ori ez zan betetu. Ori zala-ta beste matxinada bat egin eben euskaldunak.

Baiña ez ziran matxinadak dana. Ara beste jazoera eder bat:

Arriaga'ko Luis euskalduna Sebilla'n bizi zan. Bigarren osteran Santo Domingo'ra joan zan eta an kolonizatzeko-asmu bat izan eban. Isabel erregiñeagaz berba egin eta arau batzuk izenpetu ebazan: 50 biztanleko lau erri sortuko ebazan eta orretarako lur-arlo bat artu eban bost urterako, zergak zeatz ordaintzekotan.

Ez eban ondo urten asmo onek. Euskaldunak ezin sinistu izan ebezan ain onak ziran eskintzak. Azkenean 40 sendi joan ziran, baiña ez ziran euskaldunak.

"La Española" ugarteian inditarrak eta España'tarrak alkartuta lan-arloak sortu ebezan 1502'an eta 1500 lagun joan ziran ara, lurra lantzeko ta meatzak aterateko, etxeak eta eleizak egiteko, baiña españatarak alperkerian bizi ziran, inditarrak lana egiten eben artean. Inditarrak, gaiñera, emendik eroandako gaisoak artu ebezan eta urte gitxiren barruan guztiak il ziran. Orduan iru edo lau urterako langilleak bialdu ebezan emendik: Bilbao'ko Bretendon, argiña, Arteaga'ko Fortuño eta Matientzo'ko Pedro langilleak. Oneik Gipuzkoarra zan Kamargo'ko Juan'en ontzian joan ziran Bidania'ko Domingo eskribauagaz.

Amaitzeko, labur esanda, euskaldunak asko eta langilleak doguz Kolon'en inguruan Ameriketan: itxas-lanetan, meatz-billa, urre-billa, lurra lantzen, etxegintzan, agintaritzan, matxinada'k sortzen, ango endea obetzeko asmotan, inditarren eskubideak zaintzen...

Ez zan dana ona izango baiña eginkizun

aundi onetan gure aberri txikiak bere zeregi-
Fla bete eban.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

Kolon ta euskaldunak

Nundik ta nora alkartu ziran
Kolon ta gure anaiak,
dirudienez lagunak ziran
zorionez alkartuak;
amets aundi bat izandu eben
ikaratzeko jendiak,
nun ete diran erri barriak
Aita beraren semiak...

Boga ta boga esan giñaike
agur Euzkadi maitia,
gure anaiak ba-doakiguz
billatuten lur barria;
ara, nun, egon, jakin nai eben
Jaunaren seme taldia,
ametsa, laster, biurtu jaken
amerikarren sendia.

Bai eta gero, egun larriak
ango t'euskaldun artean,
amerikarrak ikaraturik
aurkitzen ziran etxean;
bildurrak bildur ta gorrotoa
sortu jaken biotzean,
euskaldun arek euren bizia
emon eben erbestean.

PAULIN

Olazar'tar Martinen berbaldia, Kolon'i buruz, atzo Euskal Astean

Atzo asi zan Alameda de Rekalde 19'an
dan Eskolapioen ikastetxean, Euskerazaleak
Alkartek eratu dauan Euskal-Astea.

Alkartearen lendakari dan Zubiri'tar
Iñaki'k egin eban astearen eta izlariaren aur-
kezpena.

Gero Olazar'tar Martin Alkartaren lenda-
kari ordean danak, bere itzaldia egin eban.

Barri asko eta benetan jakingarriak aurkez-
tu ebazan izlariak: Euskaldunak ugari joan
ziran Kolon'egaz batera Ameriketara, lenen-
go osteran asita. Batez be Juan de la Cosa
izan zan osteran orretan garrantzi aundiko gi-
zona. Galdames'en jaioa zan eta jatorriz San-
toña'koa, euskerea zan bere izkuntza eta talde
ondo alkartua osotzen eban beste euskaldun
guztiakaz.

Euskaldunak talde berezia ziran eta, asie-
rako berbea izan zan lez, zortzireun leguak
egin ebezanean, Kolon'en aurka jagi ziran
euskaldunak. Matxinada antzeko bat izan
zan.

Lenengoan ez eben ezer lortu beste itxas-
gizonak Colon'egaz bat egin ebelako, baiña
bigarren matxinada be egin eben eta orduan
alkartu jakezan besteak be eta Kolon'ek epe
bat ezarri bear izan eban. Epe orren barruan
eldu ziran Ameriketara.

Berbaldiaren ostean, Ameriketara osterak
gogoan ebazala, Solozabal'dar Paulin'ek ber-
tsolari-lana egin eban eta gero alkar-izketa
egiñaz amaitu zan egun onetan ekiñaldia.

Gaur bigarren itzaldia izango da. Gaia. Rh
euskaldunen odolean. Izlaria Arrinda'tar
Anes izango da. (DEIA'n agertua)

EUSKERAZALEAK

SANTIAGO ONAINDIA IKERKETA-BEKA



Amorebieta-Etxanoko Udalak Euskal literatura-ren alorrean ikerketa sutzatzeko xedez, Santiago Onaindia olerkari eta idazlearen omenez, biurteroko ikerketa-beka bat sortzea erabaki dau aren lan ikertzaile eta sortzailearen jarraipenaren agerpena izan dadin.

Beka onek, ondorio guztietarako, izen au izango dau: "Amorebieta-etxanoko udala: Santiago

Onaindia ikerketa-beka".

Aurkeztutako proiektuak bere iritzirako bear ainbat baldintza eta berme ez badute, Epaimaiak beka santu gabe utzi al izango dau.

IZENGAIK

Banakako lagunak naiz onetarako osatutako lantaldeak izan daitezke autagai. Bigarren kasu onetan, proiektuaren zuzendari-arduradun bat izendatu bear ko da ordezkari izan dadin.

LANAK

Lanak ondoko iru izkuntzotako batean aurkeztu al izango dira: euskara, gaztelera edo frantsesa. Lanak gaztelerez edo frantsesez aurkeztuz gero, lanaren laburpena euskaraz eskatuko da.

IRAUPENA

Proposatutako lana geienez ere urtebetekoa izango da, bekaren esleipen eta onarpenetik asita.

ZUZKIDURA

Lanaren zuzkidura 800.000,- pztako izango da.

ORDAINKETAK

Ordainketa onela egingo da:

%40a, beka esleitzean, ura onartu ondoren.

%30a, sei ilabeteroko txostena aurkeztu eta onartu ondoren.

%30a, lan osoa aurkeztu eta onartu ondoren.

DOKUMENTAZIOA

Izengaiak ondoren zeazten dan dokumentazioa igorriko dabe Amorebieta-Etxanoko Udaletxera:

- Izengaiaren edo, taldea balitz, onen ordezkariaren eskaria.
- Eskatzailearen edo, taldea balitz, beronen kide guztien "Curriculum vitae": egindako ikasketak, izandako lanbide-jarduerak, burututako ikerketak, lortutako sariak, argitapena, etab.)

- Egingo dan lanari buruzko memoria, ondokoak azalduz:
 - Lanaren interesa
 - Onen luzadura eta iraupena
 - Ikerketaren etapak
 - Erabiliko den metodologia
 - Lan-zentruak
 - Dituen bitartekoak

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Aurreko zatian azaldutako dokumentazioa aurkezteko epea 1993ko Azaroaren 15ean amaitzen da. Dokumentazioa Amorebieta-Etxanoko Udaleko bulegoetan aurkeztuko da, bertan argituko direlarik deialdi onen inguruko kontsulta guztiak.

BEKADUNEN BETEBEARRAK

- Bekaren onarpena idatziz adieraztea emakida-egunetik asi eta 15 egunen epean.
- Lanaren garaipenari buruz, aurkeztutako memoriaren arabeko txosten bat igortzea sei ilabete pasa ondoren.
- Aurrikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldateten berri ematea.
- Bekaren amaieran lan osoa aurkeztu bear ko da: Lanaren iru ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, koerlatiboki orrialdeztatuta eta koadernaturik.

LANAREN JABETZA

Lanen jabeak egileak izango dira. Amorebieta-Etxanoko Udalak berarentzat gordetzen dau ikerketen argitalpen osoa edota zatikakoa egiteko leen eskubidea. Kasu onetan bekadunak uko egingo dio egile-eskubideak jasotzeari.

Amorebieta-Etxanoko Udalak eskubide au erabili nai badu, onen berri eman bear ko dautse egileari lana bein betiko jaso eta sei ilabeteko epean, bi urteko epearen barruan argitaratu bear ko dauelarik. Epe au igaro eta, egileak bere kasa argitaratzeko askatasuna izango dau, beti ere jasotako Bekaren aipamena eginez.

EPAIMAIA

Epaimaikideak Amorebieta-Etxanoko Alkate-Leendakariak izendatuko ditu Bekaren disziplinako adituen artean.

Bekaren emakidaren ondorioa, dokumentazioa aurkezteko epegunetik asita, iru ilabete baiño leenago emango da jakitera.

Izengaiak Beka eskatze utsagatik, Epaimaiaren eabazpenaren aurkako edonolako egintza judizial edo extrajudizial uko egingo dautsoe.

GORABEERAK

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Bekaren izapidaketan zeargerta daitezten era guztietako gorabeerak konpondu aal izango ditu, gero errekursorik aurkeztu ezingo delarik. Era berean, Beka indarrik gabe utzi aal izango dau onuradunak atal ezberdiñotan azaldutako eginbarrak betetzeke baditu.

ERRIKO SUKALDEA

ANTXOAK OTZIK JATEKO

Antxoak (merke dagozanean).

Tipulak

Pipar-autsa

Olio eta gatza.

Ontzi altu batean tipula ipiñi zati zapaletan fondo guztia bete arte.

Tipula-gaiñean, antxoak banan-banan, alkarregaz, bete arte. Antxo-gaiñean beste errenkada bat tipula. Berrito antxoak eta tipulak ontzia ia bete arte.

Gero, olio ipiñi sartzean eta, berotzen danean, pipar-putsa bota, segundu batean naasta eta, erre baiño lenago, ontzira bota. Orrela bete-tako ontzia sutan ipiñi indar gutxitan. Ordu batetik bi ordura euki sutan, kantidadea eta sua nolakoak diran. Su gutxiago eta denbora geiago. Kantidade geiago eta denbora geiago. Oba da su gutxiagogaz, denbora geiago eukitzea...

Gordeteko balio dabe eta gero otzik jateko amarretako, entremes eta orrelakoetan.

LEGATZA LABA TIPULAGAZ

Legatza zati aundi bat osorik.

Bi tipula.

Bi arrautza-gorringo.

Olio. Gatza eta limoia.

Lenengo: laba berotu. Legatzari ebagi tzuek egin bizkarrean. Gatza emon eta limoia. Bandeja batean ipiñi. Sartaiñean bi tipula, zati txikie-tan, su epeletan bigundu. Gero legatzari gaiñetik bota eta laban sartu le-gatza hero-hero. Geroago laba apur bat otzitu eta tarteka laba iriki eta saltzea bota gaiñetik lebatzari.

Lebatza egiten danean (azurrak aragitik askatzen diranean) atara la-batik. Tipulak eta saltzea pasau txino baten eta hero gitxigaz bi arrau-tza-gorringo nastau. Lebatza iriki eta bertan saltzea bota. Perejilla be ipiñi jateko prest.

MAKAILLAUA "A LA ROMANA"

Makail্লাua zatika, nai dan beste.

Olio, biñagria, pipar-miña, tipulea txikituta... Uruna eta arrautzea.

Sartaiñean olio ipiñi eta tipulea. Apur bat egiten danean biñagria eta piperra bota. Bertan makail্লাua apur bat pasau. Atara eta sikatu. Urunetan eta arrautzetan pasau. Oliotan frijidu eta maira. Asko egin barik.

MAKAILLAUA MAHONESAGAZ

Makail্লাua zatika egosi.

Azala kendu.

Legortu, ontzi batean ipiñi eta mahonesagaz untan. Jateko prest.

MAKAILLAUA ERRETA

Zizki-mizki edo entremesetarako edo baso bat ardo edateko.

Asko ez.

Makail্লাua beratu-bakoa. Azala kendu eta zatiak parrillan sutan

Asko errebarik. Gatzat irteten dautso kanpora. Zapi zuri bategaz kendu. Plateretan bakoitzak bere zatitxo artun eta olio bota gordiña. Olibakoa bada, obe. Eta jan.

MA KAILLAU-PA STELTXOAK

Makail্লাua beratuta. Zati lodiak (obleas). Pipar-gorri gozoak. Arrautza egosia eta mahonesa.

Makail্লাua azurbarik triturau kilo eredi. Berarekin batera 50 gramo piparra eta arrautza egosi bat. 100 gramo mahonesa. Zati lodi bakoit-zean pasta orretatik koillarakada bat ipiñi eta bueltau erdia erdiaren gaiñean. Zatiak borobillak dira eta illargi erdi baten antzera geratuko da. Borobillak dira eta illargi erdi baten antzera geratuko da. Borobillak diran tokian kutxillo bategaz markak egin, bi zatiak alkarregaz alkartu ditezen. Frijidu.

MAKILLAU

Betiko garrak: 1 beratuten ipiñi: meia 24 ordu; lodia beste orren-beste eta oso lodia bada. denbora geiago.

2 Eskamak kendu.

3 Uretan berotu bat emon, aparra agertu arte.

4 Ur ori gorde.

MAKAILLAUA SALTZA GORRITAN

Amar lagunentzako

Patatak: bi kilo Verdi.

Makail্লাua: bi kilo. Zatika.

Tipula aundi bat.

Pipar-autsa koillara aundi bat.

Ura: bi litro edo, patatak ondo tapa-artean. Olio: 200 gramo.

Lenengo sartaiñean olio ipiñi eta tipula txikituta, erre barik, bigun-tzen danean, pipar-autsa bota segundu batean naastu eta ura (makai-llaue berotuten eukitakoa). Luzatzen bazara, erre egingo da pipar-autsa. Kazuela aundi batera pasa.

Gero, ura irakiten asiko danean, patatak ipiñi zapal-zapal ebagita. Aizkenean, patatak egosten diranean, makail্লাua ipiñi azala gora dala. Amar minutu egosten eta mairako prest.

MAKAILLAUA SALTZA ZURIAN

Amar lagunentzako.

Patatak makail্লাua, olio eta ure berdin aurrekoaren antzera. Bera-katzak sei leka.

Esparrago-sukua. Dendetan saltzen dira esparrago-sukua egiteko sobretxu batzuek. Erdi bategaz, litro erdi uragaz, egin sukua. Perrejilla apurtxo bat.

Lenengo sartaiñean olioekin berakatzak gorritu, errebarik. Kendu berakatzok. Perrejilla bota segundu batean. Pasa kazuela aundi batera.

Gero, ura bota (makail্লাuaren ura) eta patatak egosi zapal-zapal ebagita. Aizkenean, patatak egosten diranean, sukua botau gaiñera eta suku orretan makail্লাua ipiñi azala gora dala. Amar minutu egosten eta maira.

ANES SARTAIÑ

ANTXIO

Gure errien izenakin burugabekeri asko egin dira. Besteak beste, auetako bat "Pasai Antxo" da.

Bere benetako izena "Pasai Antxio" da, baiña erderatu zutenean "Pasajes Ancho" jarri zuten; orain "euskeratzerakoan" (?) "Pasai Antxo" jarri dute eta lasai lasai gelditu dira.

Ondoren doakizue gure batzarkide dan (Arbasoen-Izkuntza-Zeleak Elkarte'koa alegia) Mugi-ka'tar Imanol'ek egindako ikerketa.

Pasai'ko itsas-koldoaren zati au leku oietako bealdea da, beerena. Molinao ibayaren ur gezak ur gaziarekin biltzen dira be ortan. Itsas beeran, ur gaziak antxieta (marisma) uzten zun agerian.

Anxiña, ibaia ta itsas-kolkoa alkartzen ziran lekuan "Antxio" izeneko txabola bat omen zan. Euzkal izen onen eraketa onelaxe da.

ANTXI - Marisma.

ANTXIETA - Sitio de marismas.

ANTXIO - Lo que esta en la marisma.

Orregatik jarri zioten txabolari "Antxio" izena, antxion dagona esan nai dulako.

Antxiñako euskeraren joskeran ANTXI itzetik ANTXIO (antxian dagona) sortzen da.

Oria ta Orio izenez ere berdin gertatzen da. (Orio oian dagona) Leza, Lezo (lezan —barranco

dagona) Inda, Indo (indan —en el sendero— dagona).

Barakaldo'n "La Vega de Ansio" o Ainsio izeneko lekua arkitzen da. Be-alde onen izenaren egikera Pasai'koa bezelakoa da; Galindo ibaya eta Bilbao'ko ibaya (ria) elkartzen diran lekuan dago. Lurralde emankorra da; orain 70 bat urte arte baratz lurra zan.

Orain, Barakaldo'n, Ainsio izenez ezagutzen dute, baiña argi da Antxio itzaren sustrai berekoa dala.

Au irakurrita iñork bere erri, basetxe, leku e.a. izenen jatorria jakin nai ba'du, "Arbasoen-Izkuntza-Zaleak" Elkarte'ko 3325 bidal-tokira (apartado) idatzi. 20080 DONOSTI.

ARZELUS'ar AMALE'k
"Arbasoen-Izkuntza-Zaleak"
Elkarte'koa.



EUSKERAZALEAK

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 1994'ko urtarri-llaren 27'an (egunean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
- 2.- Diru-egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskaera ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la proxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrara el dia 27 de enero de 1994 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociacion y con el siguiente orden del dia:

- 1.- Lectura y aprobacion en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 1.- Estado de cuentas.
- 3.- Memoria de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

~

ERRAMU ERENOTZA

Erramu edo ereñotza misterioz inguratutako zugaitza egu.

Nundik datorkio misterio ori? Bere erriak iraunkorrak ditalako...? Besteak ez bezelako sustantziak dituztelako orriiek...? Dana dala, basarri askok erramu-zugaitza dute etxetarian.

SANTIMAMIÑE

Bizkaiko koba ospetsua.

Leize barruan daude orain amar milla urtetik gorako marrazkiak. Aien aurrean egiten omen zituzten gure arbasoak eren azikeri ta sorginkeriak...

Santimamiñe leizeko mendia ereñotzez josia dago.

Erramua bazter guzietan ta ereñotzarekin batera esaera zaarrak sorgiñez beteak... Koba-barneko dibujoak, sorgiñak ta ereñotza, orra iru gauza alkarrekin Santimamiñen...

Mendi gaillurrean San Migelen ermita. Beerago, berriz, Santimamiñena.

Santimamiñe edo San Mames:

"Sanmames bart ein dot ames;

ona bada bion partez;

txarra bada, bijoa aldrebes..."

SANJUANAK

Badute sanjuanak gure antxiñako eguzkiarenganako oituekin zer ikusirik...

Sanjuanak... suak... lorak... lizarra... goizeko intza... sorginkeriak... Ezin zeikean erramurik palta:

"San Juan gabea, etxe atarian egiten dan suan, errtzen dira aurreko urtean bedeinkatutako erramuak..."

"Erramu egunaren bezperan erretzen dira erramu zaarrak. Ori, San Juan suak aurreratzea dala esan oi dute zarrak..."

EKAITZAK ETA TXIMISTAK

Tximistan kontrakoak arrizko aizkorak ziran koba-zuloean euskalduna bizi zan garaian. Gaur-egun aizkora oiek urnizkoak ditugu...

Baiña, aozkorarekin batera baita erramua ere tximist eta ekaitzen kontrakoa omen da:

"Ekaitza sortzen danean, bi erramu orriekin gurutze bat egifi eta bular gaiñean jarri..."

"Erramu bedeinkatua zapaian edo tximiñi atzean gordezen da. Ekaitza sortzen danean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da..."

"Erramu bedeinkatua, ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi

da; ta, erretzean, garrrik ateratzeke, erre bear da. Orretarako su-autza botatzen zaio gañera, estaltzeko..."

SORGIN ETA GAITZEN KONTRA

"Etxeko leioetan erramu gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak..."

"Gaitzetatik libratzeko gurutze txuriak (erramuzkoak) Jartzen dituzte leio ta ateetan..."

Etxeak eta soroak ere zaintzen ditu erramuak. Bertatik sorgiñak alderazi ere. Sanjuan suak bezelaxe. Sororik soro ibilli izan oi gera, umeak gañala, sorgiñak uxatzen sanjuan suakin:

"Txarrak kanpora;

onak barrura... !"

Gure Euskalerra zaarrean ez da erramuzko gurutzerik palta izan soro bazterretan, sorgifi, ekaitz, tximista ta beste gaitz guztietatik libratzeko...

ERRAMU EGUNA

Ereñotza erramu biurtu zan.

Jentillen ereñotza bataiatu egin zuten, ta orreri ezkerrek dirau.

Arrezkero, Erramu Eguneko ereñotzak erabiltzen dira bai leio, bai ate, bai ikullu, bai etxe, bai baratz, bai soroak bedeinkatzeko ta gaitzetik libratzeko...

Leio ta ateetan jartzen dituzte.

Ikuilluko atean alkarrekin daude erramu bedeinkatua eta eguzki-fora...

"Erramu Egunean gurutze txiki mordoixkak eraman oi dira eleizara bedeinkatzeko. Gurutz oien egurra saratzezkoa izaten da. Baiña gurutzean erramu ostoak jarri bear dira..."

BESTE ZENBAIT GAUZA

"011alokak, txitoak okerrik gabe atera ditzan, arrautz azpian bi erramu osto jarri bear dira..."

"Medikuak agintzen duten botikekin erramu Egunean, etxeari buelta bat emateko oitura da, eleizean bedeinkatutako erramuakin..."

"Ildakoak, erramu ostoak dituan zapi zuri batekin estali bear dira gerriraño".

Etxeari tellatu ematean, monttorra erramuakin egiñ oi zan.

ANES (1970)

ELEIZAN

Jokabidea

Antxiña, Euskalerririk geiena Kaligurri'ko Gotzaiñaren menpean egoanik ona, euskaldunai euskeraz berba egiteko agindua izan da Eleizan, baiña, zori txarrez, erderea sartzeko agindua emon daben gotzaiñak be izan dira. Eleizearen jokabidean be, gizarte-arlo guztietan lez, illunaldiak eta argialdiak izaten dira.

Gaur eleiz-giroa euskerearen aldekoa da, bai abadeen artean eta bai beste eleiztarren artean, baiña emen be ezin goratu dana, ba-dagoz illun-uneak zori txarrez.

Barandiaran'dar Jose Migel'en idazlan baten irakurri neban, eleizea euskerearen ikastola izan dala. Eta geienetan orrelan jokatu da, eta ori guztiontzat da pozgarria. Ezin itzi emen gogoratu barik, lengo katekesi-liburuaren euskera ederra ta gozoa, ainbeste miIIa euskaldunek irakurri eta ikasi daben liburutxu polita. Eta orain daukagun "meza-liburua" ta "Irakurgaiak" deritxona. Eta beste liburu eder asko.

Elebitasuna?

Gaur larregi aitatzen da eleizan elebitasuna erabilli bear dala eta esaldi orrek bildurra sartzen daust azurretaraiño.

Elebitasuna ondo dago ia guztiak erdeldunak diran tokietan eta zenbat eta geiago sartzen dan, obeto.

Ezelan be ezin onartu elebitasuna ia guztiak euskaldunak diran errietan. Eta olako erri asko daukaguz, zori onez.

Eta euskera ta erdera erdiz-erdiz edo, egiten daben errietan zer?

Or jokabideak zalantza asko daukaz eta bide bat artu bear izaten da. Nik labor-labor azalduko dot geuk artu dogun bidea, eta ez nago ziur ona dan.

Illetak etxekoak eskatzen dabezan lez izaten dira, geienak euskeraz, baiña larunbat eta igandeetan elebitasuna artu bear izaten da, orduko mezea dalako.

Igandetarako mezen artean, bat euskera utsean, beste bat erdera utsean eta beste guztiak elebitasunaz. Euskera edo

erderea geiago edo gitxiago erabilten da, aurrean dagozanak zein izkuntzatakoak diran ikusita. Astegunetakoak elebitasunaz egiten dira.

Batzarretan zatirik gurenak euskeraz, esaterako otoitzean, baiña gero alkar-izketan erderara jotzen da.

Eskatzen dabenai itz bat

Ba-dira eleizan euskera geiago bear dala esaten dabenak, baiña gero sarritan, eurak berbetan dabiltzanean erderaz entzuten doguz; eta euskera eskatzen dabenen batzar asko erdera utsean egiten dira.

Besteai eskatzea da errezagoo, norberak betetea baiño.

Ba-dira erdera geiago egiteko eskatzen dabenak be, bertan errian jaio diranen artean be bai.

Oneik, jakiña, euren pentsabidea dauke, zori txarrez euskerearen aurkakoa, eta olakoai jaramon egiteko usterik ez dogu. Euskerearen aurka jokutzen dauana, zalantza barik, gure erriaren aurka doa.

Abadeak

Banakako kasuak aide batera itzita, abaderik geienak jatorrak dira euskerearen aldeko eritxietan, lenago eta gaur, eta euskera utsez egiten diran batzarrik geienak abadeenak izaten dira.

Abadeen artean ba-dira euskera ondo menperatzen dabenak, idazle onak be bai, baiña beste askok, euskeraz berba ondo egin arren, idazteko orduan euren burua landu barik ikusten dabe. Tamala benetan. Ori adierazten dau emen azpian agertzen dogun oarrak edo deiak. Larrabetzu'ko abadea dan Jose Manuel Bizkarguenaga'k idatzia da. Lan ederra da or iragarten dauana!

Berotasun geiago bear dogu euskera]antzeko!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ZELANGOA DA ABADEON EUSKERA?

Aldizkari onetan, euskera menperatzen ez daben abade talde batek zer egin dauan eta zer egiten dauan azaltzen da erderaz. Igazko ikasturtean, euskera dakien abadeei ere egin jaken dei bat, euren umetatik ikasitako izkuntza au lantzeko eta aberas-teko aukera bat eskeiñiz.

Tamalgarrria da, izan ere, geure izkuntza erabilten dogun lez erabiltea. Askoo dira euskeraz idazten ausartzen ez direnak, ezbai asko sortzen jakelako. Idazten dabena utsez josita idazten dabe beste batzuk. Egiten dogun ori ez litzateke egingo, erederaz idazten danean.

Abade batzuegan ere ori jazoten danez, Elizbarrutiko Bikaritzza Nagusiak euskera-lantze-ekitaldi batzuk eratu ditu euren-tzat. Euren burua egoera orretan dagoela uste daben abadeek lurraldeko bikarioengana joko dabe. Izen guztiak batutakoan, guztien artean erabagiko dira ikastaroaren leku, egun eta orduak.

ALKARREN BARRI
ELEIZBARRUTIKO ALDIZKARITIK

"Ñ" ETA "LL"-REN ALDEZLE

Aspalditik nabil onetaz zeozer esan guraz eta asmo orretara ainbeste astakeria entzuteak eroan nau.

Orain, eta Euskaltzaindiaren 75. urteurrenerako ospakizunaren ekintzak azalduz gero, daukadan esatekoa adierazteko aukerarik onena dala uste izan dot.

Euskaltzaindiak batasunerako eskaini ebazan erabakietariko batzuk oneixek izan ziran: "i" eta "n", edo ta "i" eta "l" alkartzen diranean, eta urrengo izkia bokala izanik, "in"="ñ" eta "il"="ll" aozkatu bear direla, eta orrela mina, mutila, egina, baina, ile, bikaina, e.a... idazten danean, miña, mutilla, egiña, baña, ille, bikaña esan bear da, gure egoaldeko errietan beti olan esaten zalako.

Baina olan izan bearrean, eta idazkeraren ondorioz, millaka euskaldunen abotsetan (eta ez euskaldunbarrietan bakarrik), abeslari, bertsolari, islarienetan, idatzita dagoan bezela aozkatuta entzuten da. Orain gitxi entzundakoen artean Lete, Laboa eta bertsolari batzuk jatordaz burura, eta... ori bai soiñu arrotza!

Orrelakorik ez izateko, ikasbidea erreztatzeko eta euskera biziari mesede aundia egiteko, Euskaltzaindiari "ñ" eta "ll" idazten eta irakurtzen egon giñan. Gero 25 urte betebarri dauzan batuen legiak ezarri ziran, euskalki txikienen lokalismoak derrigorrez sartuaz euskalki nagusien

kalte, eta aipatutako oztopoak sortu ziran euskaldun guztiontzat.

Eta asmo au datorkit burura: zer da garrantzi-tsuago, euskera bizirik iraunarazi ala izkuntza barria sortarazi eta, egin daben legez, indarrez ezartzea?

Bestalde, or dogu erantzuna. Euskeraren eta euskerazko irakaskuntzaren emaitzak, ain onak omen izanak, ez datoz bat euskeraren benetako erabilpen maillagaz, euskaldunberrien artean erdera da nagusi, eta betiko euskaldunen arteko erabilbideak gaiñera atzerakada aundia izan dau, gazteen artean batez bere.

Aukerarik onena dauka orain Euskaltzaindiak oztopo erreik leuntzeko, eta izkuntzari mesede ori egiteko, ez daitezala eragozle izan, eta orrela gure izkuntza maitea politago entzungo dogu eta erreztasun aundiagoaz ikasiko dogu.

PALMI

=< <=< <=<

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ




Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultura Saila

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa